

UNEDen SOSTENGURAKO UDAL BATZORDEAREN BILERAKO AKTA, OHIKO SAIOAN EGINA, OSTEGUNEAN, 2014KO OTSAILAREN 13AN, 18:00ETAN, EGOITZAN, PORTUGALETEKO IGNACIO ELLACURIAREN PARKEKO 3.EAN

GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bilerako aktaren irakurketa eta, badagokio, onarpena
2. Egoerari buruzko txostena
3. 2013ko Aurrekontuaren Likidazioa
4. 2014ko Aurrekontu Proiektua
5. Zuzendariaren txostena
6. Galde-eskeak

Aipatu datan, aurreikusitako orduan eta ondokoak bertaratuta:

Mikel Torres Lorenzo Jauna, Portugaleteko Udalaren izenean, Zuzendaritza Batzordeko Presidentea.

Carlos Fernández Martínez Jauna, Barakaldoko Udalaren izenean.

David Salso Domínguez Jauna, Sestaoko Udalaren izenean.

Era berean, gonbidatu gisa, Fernando Castañeda Bravo Jauna, UNED Bizkaiaren Zuzendaria, eta Miguel González San Martín Jauna, UNED Bizkaiaren Idazkaria, egon dira.

LEHENA.- AURREKO BILERAKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BADAGOKIO, ONARPENA

Baiezkoa emanda onartu da.

COMISIÓN MUNICIPAL DE APOYO A LA UNED 13/02/2014

BIGARRENA.- EGOERARI BURUZKO TXOSTENA

Presidenteak, Mikel Torres Lorenzo Jaunak, hitza eman dio Zuzendariari, Fernando Castañeda Bravo Jaunari; honek 2013ko aurrekontuaren likidazioan emandako desbideratze bat azaldu du, Eusko Jaurlaritzaren ekarpenarekin lotua. Otsailean aurrekontua onartu zen, % 10eko gutxiagotzea aurreikusita. Benetan, % 20 murriztu zen.

HIRUGARRENA.- 2013KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Presidenteak hitza eman dio Zuzendariari; honek 2013ko Aurrekontuaren Likidazioko partida esanguratsuenak azaldu ditu. Jakinarazi du 2013ko Aurrekontuaren Likidazio proposamen bat eramango duela Artekarrizta Kontseilura, 1.223.448 euroko diru-sarrerekin eta 1.240.002 euroko gastuekin, 16.554 euroko defizita dakarrena.

Diru-sarrerei dagokienez, 61.890 euro izan ziren Prezio Publikoen eta beste diru-sarrera batzuen partidan; 1.149.580 euro Transferentzia arruntetan; eta 11.978 euro Kapital Transferentzietan. Partidarik esanguratsuenak, Transferentzia arruntak, honela banakatzen da: 555.226 euro UNEDenak, matrikulen % 40ko itzuleragatik; 292.698 euro etorri ziren Eusko Jaurlaritzatik (172.698) eta Bizkaiko Foru Aldunditik (120.000); 256.656 euro tokiko udaletatik eta 45.000 euro BBKtik. Azaldu du Bizkaiko Foru Aldundiak bere ekarpena handitu duela, 90.000 eurotik 120.000 eurora, hain zuzen ere.

Gastuei dagokienez, 505.730 euro langileei bideratu zitzaizkien; 274.161 euro Ondasun arruntetara eta zerbitzuetara; 423.047 euro Transferentzia arruntetara (irakasleak tutoreak); 14.080 euro Aktiboak, hornikuntzak eta ezohiko konponketetara; eta 21.325 euro Inbertsio errealetara.

Zuzendariak bukatu du esanez 2013an gauzaturiko aurrekontuko zenbatekoak 2005eko aurrekontukoena ia berdina direla.

LAUGARRENA.- 2014KO AURREKONTU PROIEKTUA

Presidenteak hitza eman dio Zuzendariari; honek azaldu du 1.406.362 euroko Aurrekontua aurkeztuko diola Artekarrizta Kontseiluari.

Diru-sarreretan, 182.914 euroko gehikuntza espero da. 1.348.660 euro Transferentzia arruntei dagozkie. UNEDetik espero da 656.408 euro jasotzea, 101.182 euroko gehikuntza dakarrena. Eusko Jaurlaritzatik eta Aldunditik 392.698 euro espero dira, Aldundiaren aurrekontuetan iragarritako 120.000 euroak mantenduko direla aurreikusita, baita Eusko Jaurlaritzak bere ekarpenean iragarritako 100.000 euroko gehikuntza ere. Udaletatik 259.554 euro espero dira, eta BBKtik, berriz, 40.000. Prezio Publikoen eta beste diru-sarrera batzuen kapituluan, 57.102 euro daude jasota aurrekontuan.

COMISIÓN MUNICIPAL DE APOYO A LA UNED 13/02/2014

Gastuei dagokienez, Zuzendariak adierazi du, diru-sarreraren gehikuntza abagunearen arabera edo denboran jarraitua izango ote den ziurtasun eza kontuan hartuta, bere proposamena dela gastuek behar zehatzei erantzutea, esaterako, egiteke dauden obrei, etorkizuna kolokan jarriko ez dutenei. 958.100 euro Langileei bideratuko zaizkie, AZL eta irakasleak tutoreak barne; 297.587 euro Ondasun arruntak eta zerbitzuetara; 20.600 euro Inbertsio errealetara; eta 124.375 euro Aktiboak, hornikuntzak eta ezohiko konponketetara. Azken gastu horren zati garrantzitsua ITEk (Eraikinen Azterketa Teknikoa) jauregiaren egituraren eskatzen duen obrari dagokio, hala nola eraikin nagusiko teilatua, teilatu-hegaletan eta zorrotzetan egin beharrekoak.


BOSGARRENA.- ZUZENDARIAREN TXOSTENA

Presidenteak hitza eman dio Zuzendariari; honek azaldu du egungo ikasturtean 3.633 ikasle daudela eta aurrekoan 154 tituludun izan zirela. Otsailean, 4.523 azterketa egin dira. Sarrera- eta itzulera-postak baliatu ziren. Ikasleak bere azterketa egun batzuk geroago ikus dezake, eta asistentzia-ziurtagiria ere inprima daiteke, Epaimahaiari eskatzea ahaztu balu. Eskertu egin du irakasleek tutoreek Epaimahaiari emandako laguntza. Burututako zenbait ikastaro aipatu ditu, hala nola, Tresna birtualen erabilera UNEDen, Trebetasun sozialena edo Idazketa Tailerra. Bost irakasle tutore lanpostu esleitzeko lehiaketa egingo da: bi hutsik geratu direlako, bata adinagatik eta bestea arrazoi pertsonalengatik, eta beste hirurak bitarteko irakasleek betetzen dituztelako. Ez dira lanpostu berriak, hau da, ez dute aurrekontu-zuzkidurarik behar. Era berean, Zuzendariak jakinarazi du Idazkariak errelebo-kontratua eskatu duela, Atezainak eta Administrariak jada badutenaren modukoa.

SEIGARRENA.- GALDE-ESKEAK

Carlos Fernández Martínez Jaunak proposatu du gutunak bidaltzea Sestaoko eta Trapagarango udaletara beraien egoera azal dezaten eskatzeko. Fundazioa uztea erabakitzen badute, legeak ezarri bezala egin beharko lukete, hau da, erabaki hori hartuko duen osoko bilkura deituta eta UNED Bizkaiari formalki idatziz jakinarazita. Halaber, eskaera egin du gutun bat bidal dakion Getxoko udalari, UNEDi ekarpenen bat egin diezaion eskatzeko, aurreko ekitaldietan egin bezala. Aho batez onartu da.

Eta, besterik gabe, bilera deialdiaren eguneko 19:30ean bukatu da.



Mikel Torres Lorenzo
Zuzendaritza Batzordeko Presidentea